

EUSKARA ELEZ ETA LEGEZ IPAR EUSKAL HERRIAN

Aramaio 1999-IX-25

Erramun Baxok

“Legez eta elez” 1997an Herri Urratsetako lema zen, euskararen ofizialtasuna eskatuz eta denbora berean atxikimendu gehiago euskaldunenganik beren hizkuntzarentzat. Lema beste esanahi batean hartuz, euskararen statusa aztertuko dut Iparraldean 4 pundutan:

- frantsesaren nagusitasuna legez,
- beste hizkuntzen onarpena legez,
- hizkuntz legediaren muga ezin gaindituak,
- gaur eguneko aterabideak elez.
- Euskararen onarpena.

1. FRANTSESAREN NAGUSITASUNA LEGEZ

Frantziako hizkuntz legediaren lehen ezaugarria da frantsesaren nagusitasuna. Frantsesa dela Estatuaren hizkuntza erabakia da François I. manuz geroztik (Villers-Cotterêts, 1539): “*Nous voulons d’ores en avant que tous arrêts (...) et autres quelconques actes de justice (...) soient prononcez, enregistrez et délivrez aux parties en langage maternel françois et non autrement*” (art. 110). “Hemendik goiti nahi dugu erabaki guztiak (...) eta beste zeinahi zuzenbidezko akta ahozkatuak izan ditén, idatziak eta auzikidei banatuak ama hizkuntza frantsean eta ez bestela” (110. atala). Bestela horrek erran nahi zuen latinez.

Frantziako iraultza denboran frantsesa zen nazioaren ikurra eta askatasunaren tresna. Gregoire abadearen ustez beste herri hizkuntzak sinesmen zaharren eta etsaien hizkuntzak ziren. Orduetik finkatu zen jakobinismoaren trilogia nazio batua, lurralde ezin zatitua eta hizkuntza bakarra.

1992an, bi legebiltzarrek Konstituzioa aldatu zuten, 2. artikuluari gehituz Toubon-Lamassoure emendakina: “*La langue de la République est le français*” “Errepublikaren hizkuntza frantsesa da”. Zergatik horrenbeste denbora eman zuten Villers-Cotterêtseko manua lege nagusian sartzeko? Orain arte ez baitzen beharrik, frantsesa Frantziaren hizkuntza izan zedin pleonasmobaten itxura

zuen. Europa batuak du aldatu hizkuntzen egoera, ingelesari emanez lehentasun praktikoa. Dena dela 2. artikulua ingelesari baino makur handiagoa egin die herri hizkuntzei.

1994: Toubon legeak erabakitzen ditu frantsesaren nahitezko eremuak. *“Art. 1: Langue de la République en vertu de la Constitution, la langue française est un élément fondamental de la personnalité et du patrimoine de la France. Elle est la langue de l’enseignement, du travail, des échanges et des services publics”* “1. art.: Konstituzioaren arabera Errepublikaren hizkuntza den frantsesak Frantziaren nortasuna eta ondarea oinarritzen ditu. Ikaskuntzako, laneko, harremanetako eta zerbitzu publikoetako hizkuntza da”. Jarraian legearen 24 artikuluek finkatzen dute frantsesaren erabilera iragarkietan, lan munduan, kontratuetan, publizitatean, zuzenbidezko idazkietan.

1994-1996: Legeen epaitegi gorenaren Konstituzio Kontseiluak bi erabaki hartu zituen, alde batetik Toubon legea eta bestetik Polynesiaren legea argitzeko: *“Le législateur impose l’usage du français aux personnes morales de droit public et aux personnes privées dans l’exercice d’une mission publique, ainsi qu’aux usagers dans leurs relations avec les administrations et services publics”* - “Legegileak frantsesaren erabiltzera behartzen ditu zuzenbide publikoan dauden pertsona moralak eta eginbide publiko bat betetzen duten pertsona pribatuak, bai eta baliatzaileak administrazioekin eta zerbitzu publikoekin dituzten harremanetan”. Frantsesaren erabilera nahitezkoa da administrazioetako arduradunentzat bai eta ere erabiltzaileentzat. Halere 1994eko erabakiak 3 salbuespen ezartzen ditu beste hizkuntzen alde, irakaskuntzan, komunikabideetan eta itzulpenak zerbitzuetan erabiltzeko.

Zein toki gelditzen zaie herri hizkuntzei? Toki hertsia egia erran, eta hain zuzen lerroalde honetan irekidurak erakutsi nahi nituzke, baliatu behar baititugu gure hizkuntz estrategia eragingarria izan dadin.

2. BESTE HIZKUNTZEN ONARPENA LEGEZ

1789ko Herritar eta giza ekubideen aitortpena idazki konstituzionala da. 11. artikulua komunikazioaren askatasuna aldarikatzen du: *“La libre communication des pensées et des opinions est un des droits les plus précieux de l’homme; tout citoyen peut donc parler, écrire, imprimer librement, sauf à répondre de l’abus de cette liberté dans les cas déterminés par la loi”*. “Gogoetak eta iritziak adierazteko askatasuna giza eskubideetan baliosena da. Beraz herritar orok hitzegin dezake, idatz eta inprima askatasunean, salbu erantzun beharko duela askatasun hori gaizki erabiltzen duenak legearen arabera”.

Eskubide hau Toubon-Lamassoure emendakina baino 200 urte zaharragoa da. Garrantzia handia dauka frantsesari eskusibotasuna kentzen baitio beste hizkuntza guzietan bezala. Herri hizkuntzak bi artikulua hauen artean kokatzen

dira. Maiz erraiten da 2. artikulua eginbide kolektiboa sortzen duela, frantsesa erabiltzeko zerbitzu publikoetan eta beraz zuzenbide publikoaren eremuan dagoela. Aldiz 11. artikulua askatasun indibidual bat definitzen duela, giza eskubideek pertsona bakoitza zaintzen baitute boterearen menetik, ondorioz eskubide pribatuan gabiltzala.

Egia erran, legelariak diote Frantziako zuzenbidean eremu publikoaren eta pribatuaren arteko muga ez dela ongi definitua, adibidez ikaskuntzan, komunikabideetan eta gizarte zerbitzuetan medikuntzan eta beste. Publikotasun kontzeptuaren malgutasuna bala dezakegu euskararen egoera hobetzeko. Eta guztenez hiru lege badira herri hizkuntzen erabilera onartzen dutenak erakunde publikoetan.

Irakaskuntzan

1951: Deixonne legeak Hezkuntza Nazionalari manaten dio herri hizkuntzen eta dialektoen irakaskuntza antola dezan. Lehen mailako errientek hizkuntza horiek erabil ditzazkete, astean oren batez, mintzatuz, irakurritz eta idatziz. Irakasle eskolatan ikastaldiak izan ditzake tokiko hizkuntzei eta kulturei buruz. Bigarren mailan eta baxoan tokiko hizkuntzak erabilgarri dira. Bordenleko unibertsitatean euskara eta euskal literatura irakatsiko dira eta diploma ofizialak banatuko. Lege hau luzaz lo egon zen, kasik Haby legea bozkatu arte (1975).

Gero sozialistak gobernuan sartu zirenean tokiko kulturak ez dira bakarrik ikasgai batzu, gainera hezkuntza tresna bilakatzen dira. Lekuko bi gutun. Savary gutunak (1982) herri kulturei "egiazko statusa" ematen die Hezkuntza Nazionalaren baitan eta hizkuntza horiek gai batzuren irakasteko baliatzen ahalko dira, ama-eskolatik unibertsitatearaino. Jospin gutunak (1983) ildo berari jarraikiz herri nortasuna sustengatzen du, sorkuntza kulturala eta ondare nazionalaren aberastasuna. Ez zuen oraino pluraltasunaren kontzeptua asmatua. Eskuin aldean hor dago Bayrou (edo Darcos) gutuna (1995) bi ikaskuntza ereduak finkatzen dituena, hastapeneko astean 3 oren eta elebiduna denbora erdiz. Inmersioa edo murgilbidea ez du aipatzen bainan ikastolen sareakin eta beste herri eskolekin hitzarmena izenpetu zuen.

Beraz herri hizkuntzak eta kulturak hezkuntza publikoan sartuak dira. Baina ez da nehorrentzat beharrezko eginbidea. Irakaskuntza segurtatua da gurasoek, ikasleek eta irakasleek nahi badute. Zenbat baliatzen diren idazki ofizialek eskaintzen dieten ahalaz? Adibidez Iparraldeko lehen mailan % 5 eskolier ikastoletan dabilta, % 11 ikasgela elebidunetan eta % 11 hastapen kurtsoetan. Aldiz % 73 ikasle frantses elebakarrean daude, batzutan ingeles pixka batekin. Bigarren mailan eta unibertsitatean egoera oraino okerragoa da euskararentzat eta beste herri hizkuntzentzat.

Komunikabideetan

1982: Entzun-ikusgaien legeak bi eragin handi ukan zituen: alde batetik herri hizkuntzak eta kulturak sartu zituen komunikabide publikoetan. Bestalde Estatuaren monopolioa hautsi zuen, irрати pribatuak sortzeko baimena emanaz. Orduan Iparraldeko 3 herrialdetan sortu ziren 3 elkarte irратиak Gure Irratia, Irulegiko Irratia eta Xuberoko Boza, geroztik badabiltzanak. Orain legebiltzar-rrak hedabideen lege hau berri-ru nahi du gaurko komunikazio egoerari egokitzeko. Guri da herri hizkuntzen lekua zaintzea.

Administrazio publikoan

Ikusi dugu neurri handi batean administrazioa frantsesaren eremua dela. Halere konstituzioaren bikoiztasunari esker irakurketa ezberdinak posible dira. Alabainan 1992ko 2. artikulua ezin da irakurri, 1789ko 11. artikulua baztertuz, komunikazio askatasuna lehen mailako eskubidea baita.

Holaxet ulertu behar da Toubon legean (1994) agertzen den 21. artikulua: *“Les dispositons de la présente loi s’appliquent sans préjudice de la législation et de la réglementation relatives aux langues régionales et ne s’opposent à leur usage”*. “Lege honetako neurriak aplikatzen dira, herri hizkuntzei buruzko legediari eta araubideari kalterik egin gabe eta ez doaz hizkuntza horien erabileraren aurka”. Zer nolako erabilera, pribatua ala publikoa? Testuak ez du trenkatzen eta kontestu guztia komunikazio publikoarena da.

Beste irakurketa interesgarri bat Carcassonne txostenean (1996) agertzen da. Paris X unibertsitateko irakasleari gobernuak galdegin zion azter zenan Hizkuntza gutituen eurkartaren konstituzionaltasuna. Eurkarta sinagarria zela frogatu zuen administrazioaren kapitulua kendu gabe. 18 orrialdeko argudioa derama idazki juridikoen arteko koherentzia erakusteko, eta ondorio honetara helden da: frantsesa da administrazio hizkuntza normala baina ez dauka eskusibitaterik. Beste hizkuntzak ez dira debekatuak, beraz zilegi dira. *“Les soucis de bonne administration, de proximité ou d’efficacité peuvent légitimement inciter (...) à développer le bilinguisme”*. “Elebitasunaren erabilera bultzatzea bidezkoa da (...) administrazioa hobetzeko kezkaekin, hurbiltasuna edo eragin-kortasuna bilatuz” (63. atala).

Baina legelariak azpimarratzen du herri hizkuntzen erabiltzeko ahalmen horrek ez duela sortzen eginbiderik arduradunengan, ez eta ere hizkuntz eskubide kolektiborik herritarren alde. Gisa guziz frantsesa ezin da baztertu. “Tokiko administrazio publikoan, tokiko hizkuntza erabiltzeko ahal bat ematen delarik (maiz gertatzen den bezala de jure eta de facto), frantsesa baztertzen ez den neurrian beste hizkuntza bat inposatzeko, konstituzioaren aldetik onargarri da” (131. atala). Bi baldintza horiek betez, erabiltzaileen nahia eta frantsesaren

presentzia, daukagun konstituzioarekin, herri hizkuntzak erabilgarri dira zerbitzu publikoetan. Dena dela, Deixonnek 1951an hezkuntza nazionalaren bunberra arrailu zuen bezala, Carcassonne txostenak frantsesaren harresia doi bat urratzen du eta ateka hortarik konstituzionaltasunera pasarazten ditu Eurokartaren zati handi batzu, justiziaren eta administrazioaren artikulua kendu gabe.

3. HIZKUNTZ LEGEDIAREN MUGA EZIN GAINDITUAK

1999ko ekainaren 15ean, Konstituzio Kontseiluak erabaki hau hartu zuen: “Hizkuntza gutituen eta tokiko hizkuntzen eurokartak badauzka Konstituzioaren aurkako klausulak”. Irakurketa zorrotz honen arabera, Eurokartaren aitzin-solasean eta 7. artikuluan, hiru printzipio badira onartezinak, hizkuntz eskubide kolektiboak, lurraldetasuna eta herri hizkuntzen erabilera publikoa.

Alde batetik Eurokartak aipatzen ditu “hiztun taldeak”, “herri hizkuntzak erabiltzen dituzten multzoen beharrak eta nahiak konduan hartu behar direla”, “agintariei aholkuak emateko erakundeak antolatuko direla” (7. art.). Hizkuntz komunitateak, mintzakidegoak edo erkidegoak onartuz, Frantziako jendetzeak legearen aitzinean duen berdintasuna hausten omen da. Alabainan Euskaldunek euskara erabiltzeko eskubidea eta eginbidea balute, bestek ez bezalako zuzenbide berezia balukete.

Bestalde 7. artikulua dio “herri hizkuntza bakoitzaren lurraldea errespetatuko dela, oraingo eta geroko administrazio zatiketak ez dezala ostopa hizkuntza horren aitzinamendua”. Ez dakit Euskal departamenduaren auzia kasu horretan sartzen denetz. Dena dela Konstituzio Kontseilariaren arabera lurraldetasuna kulturaren edo hizkuntzaren arabera finkatzen balitz, jokamolde horrek Errepublika ezin zatituaren batasuna arriskuan ezar lezake.

Gainera bi tokitan Eurokartak aipatzen du herri hizkuntza bizitza publikoan erabiltzeko eskubidea. “Le droit de pratiquer une langue régionale ou minoritaire dans la vie privée et publique constitue un droit imprescriptible”. “Herri hizkuntza edo hizkuntza gutitu bat bizitza pribatuan eta publikoan erabiltzeko eskubidea, ezin ukatzeko eskubidea da” Eta aitzin-solasak erreferentziak emaiten ditu nazioarteko zuzenbidean. Erabilera publikoa eskubide bezala eskatuz Konstituzioaren 2. artikuluaen aurka goaz: mintzatzeko askatuna edo ahalmena bai, eskubiderik edo eginbiderik ez.

Harrigarri da Konstituzio Kontseiluaren erabakia zein fundamentalista den. Alabainan Errepublikaren barnean badira eskubide kolektibo bereziak hala nola sindikatentzat eta ofizio batzuzentzat; lurralde administrazioak badira ezagarrri kultural berezia dutenak, Britainia, Kortsica, Kaledonia Berria; hiztunak jatorrizko hizkuntza erabiltzeko azkatasuna badu, Estatuak askatasun hori zaintzeko eginbidea du. Ondorioz Carcassonne legelariaren arabera Eurokarta sinagarria zen, ohar batean printzipio konstituzionalak oroitaraziz. Kontseiluaren

arabera, ohar batek ez dio zuzenbide idazki bati bere indarra kentzen eta jakobinismoaren trilogia, "nazio bat, lurralde bat, hizkuntza bat", Errepublikarentzat arriskugarria da, herri hizkuntzei aplikatzen delarik.

Hiru printzipio horiek ukatu ondoren, Konstituzio Kontseiluak aipatzen du komunikazio eta edierazpen askatasuna bereziki irakaskuntzan, ikerketetan eta komunikabideetan, bai eta ere itzulpenak administrazioan erabiltzeko ahalmena. Ondorioz gobernuak sinatu dituen (39) hizkuntz neurriak onargarriak dira "alabainan gehien batean Frantziak herri hizkuntzen alde egiten duena agertzen dute".

4. GAUR EGUNEKO ATERABIDEAK ELEZ

Arriskuan den hizkuntza bat salbatzeko bi baldintza beharrezkoak dira, erakundea eta atxikimendua. Edo bestela erranez, hizkuntzaren antolaketa eta erabilera, hizkuntz eskaintza eta eskaera, "legea eta elea". Eta biak elgarrekin. Lehenik aipa dezagun erakundea. Hizkuntza gizartearen tresna delakotz gizartea hizkuntzaren zaindari izanen da: akademiak corpora zaintzen du, botere politikoak hizkuntzen statusa finkatzen du eta administrazioek erabilera publikoa segurtatzen dute. Erakundea beharrezkoa da baina ez da aski. Ikus Irlandan zer gertatzen den. Hortakotz hiztunek beren atxikimendua erakutsi behar dute herri hizkuntzaren alde, familiako jarraipena segurtatuz, ikastetxeetan landuz, egunero erabiliz etxean eta gizartean.

Hizkuntz eskaera

Zertan da euskarari buruzko atxikimendua? Boluntarismo hau hizkuntz inkesta guztiek agertzen duten ezaugarria da. Galdea euskarazko ikaskuntzaz delarik edo euskararen gizarteko erabileraz erantzunak baikorrak dira neurri handian. Aldiz galdatzen delarik euskara beharrezkoa denetz hemen bizitzeko, dudazko erantzunak biltzen dira. Beraz euskaldunok behar dugun baino euskara gehiago nahi dugu. Katalunian eta beste herri askotan horrelako boluntarismorik ez da agertzen, hizkuntz errealismoa baizik.

Hain zuzen Frantziako hizkuntz legediaren oinarria gizartearen eskaera da. Guraso multzo aski handiak nahi badu, eskola batek ikasgela elebidunak ireki ditzake. Beste adibide bat, komunikabide publikoen (eta pribatuen) irizpide nagusia entzulegoa da. France 3 telebistak euskal emankizunak murriztu ditu, ikuslego eskasez omen, Akitaniako erdaldunek ihes egiten zutelakoan. Estakurua: aterabidea litzateke irrati eta telebista publikoa osoki euskaraz. Ez dugu oraindik ardietsi. Guharen irratiak sortu ditugu eta Euskal telebistak ematen digu Frantziak eskaini behar lukeen zerbitzu publikoa.

Gizarte zerbitzuen mailan ere gizarte eskaera zerbait bada: seinalakuntza elebiduna, euskarazko helbideak posta zerbitzuetan, euskarazko elkarrizketa batzu herriko etxeetan eta saltegietan, elizkizun elebidunak. 1996ko ikerketa soziolinguistikoak erakutsi digu erabilera publikoa ahul zela Iparraldean, salbu eremu tradizionaletan hala nola lagunarteán, merkatuan eta erlisiso guneetan.

Zorigaitzez euskarari buruzko atxikimendua ahulduz doa. Alabainan nekagarri da beti eskale izaitea: militantismoa beharrezkoa baina ez da egoera normala, normalizazio falta frogatzen baitu. Euskal gogoa bada eta aipatu ikerketak erakusten du Iparraldeko jendeen % 49, euskaldun ala erdaldun, euskararen alde direla. Baina gogo ona ez da jokabide bilakatzen. Adibidez familiako transmisioa gutituz doa, bigurasoak euskaldunak direlarik ere haurren % 82 dira euskaldun, guraso bat erdalduna delarik haurren % 73 dira erdaldun. Eskolak ez baitezake familiaren egindidea bete, 16-24 urteko gazteetan % 11 dira euskaldun Iparraldean, Euskal Autonomia Erkidegoan adin berekoetan % 33 euskaldun direlarik. Aurtengo erroldan hizkuntz galdeak baziren. Ondorioen beha gaude, itxaropen izpi bat agertuko denetz euskal irakaskuntzari esker.

Erakundearen eginbidea

Eskaera ahulduz doa ez baita hizkuntz eskaintzarik erakundearen aldetik. Frantziar herri hizkuntzez axolatzen direnen helburu nagusia da *hizkuntz legea* ardiestea, Europarlamentuko Kililea txostenak (1994) definitzen duen "legezko izaite egokia" ("statut légal approprié") gizarte osoa estaltzen duena: ikaskuntza, zerbitzu publikoak eta hedabideak. Bagenuke lotsatzekorik, 50 urtez 50 legegai irakurri baike nituen eta denak ilortu ziren salbu Deixonne legea. Dirudi aroa hobetuz doala. Alde batetik gobernuak aurtengo maiatzean Eurokarta izenpetu du. Konstituzio Kontseiluak 4 lerroalde ukatu baditu ere (garrantzitsuenak nonbaitik ere!) beste gutzia onartua da, bereziki 3. zatian hautatuak diren 39 hizkuntz neurriak. Sinadura hau erabaki politiko indartsua da herri hizkuntzen alde. Ondorioak ikusiko ditugu neurri horiek legeztatuko direlarik.

Bestalde Carcassonne txostenak proposatzen du hizkuntz lege baliagarri baten edukia, eta bereziki ororentzat onargarri den printzipio ideologikoa: "Cet- te loi devrait formuler un principe, celui de la reconnaissance, comme élément du patrimoine culturel national, des langues de France". "Legeak printzipio hau finkatu behar luke, Frantziako hizkuntzak ondare nazionalean kokatzen dire- lako onarpena".

Gainera euskarak eta beste herri hizkuntzek hartzen dute *izaite konstitu- zionala* frantsesak duen bezala. Euskaltzaindiak Miarritzeko txostenean (1997) euskararentzat koofizialtasuna eskatu zuen. Aterabide optimal honek erkidegoa suposatzen du eta federalismoa, hots, iraultza kultural bat gure hautetsienganik: Bernard Poinant Kemperreko auzapezak Bordelen erraiten zigun gaur egun

ez dela ez deputatu bat ez senadore bat herri hizkuntzen ofizialtasunaren alde denik. Halere hartze dugun eskubide hori etengabe eskatuko dugu: “res clamat domino”. Anartean herri hizkuntzak konstituzioan sarrarazi behar ditugu, ofizialtasunaren ate handitik ezin bada, bederen ondare nazionalaren leihotik. Paretotasun bat agertzen da hizkuntzen artean: euskarak Frantzian bere lekua bilatzen duen bezala, frantsesak Europan berea zaintzen du. Borroka berdina deramagu. Deus kendu gabe 2. artikulutik, legegilek gehi lezakete “Frantziako hizkuntzek ondare nazionala osatzen dute”.

Iparraldean euskararen sustengatzeko erakundea eraiki behar dugu, *Hizkuntz Kontseilua*. Eztabaida luzearen ondotik, hautetsien eta euskal elkartearen artean egitura eta eginbideak definitu ditugu. Euskalgintza elkartetako arduradunekin bilduko dira botere publikoaren 4 sailtako ordezkariak: Estuaia, Akitania, Departamendua eta Herriarteko euskal sindikata. Hizkuntz Kontseiluak 3 funtzio nagusi beteko ditu: proposamen funtzioa gizarte eskaera adierazteko aholku eta abisu moldean; funtzio teknikoa euskal gogoia sustatzeko, erabakiak gauzatzeko, hizkuntz zerbitzuak eskaintzeko; beha gune edo sintesia funtzioa ere urtero euskararen aldeko programa finkatzeko eta epe definitu batzutan neurtzeko. Hots botere politikoa eta gizarte zibila bilduko dituen erakunde honek, bere gain hartuko du Ipar Euskal Herrian euskararen geroa, Euskaltzaindiarekin elkartasunean eta Hegoaldeko hizkuntz zerbitzuen lankidetzarekin. Halere jakinez faktore eragingarriena dela Euskaldunen hizkuntz atxikimendua.

5. EUSKARAREN ONARPENA

Hiztegintza hautu bat eginez, “onarpen” hitza hartzen dut latinezko “status” edo frantsesezko “reconnaissance” hitzen esanahi berdintsuetan. Zein moldeko onarpena edo statusa ardietsi behar dugu Iparraldean deramagun borroka juridiko-politikoan?

Hizkuntzaren onarpena eskatuz, “statut de la langue”, duela hogeituroko tradizioari jarraitzen gira, Pizkundea federazioa sortu zuen liburuxka horiaren izenburua hau baitzen: “Pour un statut de la langue et de la culture basques”, euskara eta euskal kulturaren statusaz. Esaeraren alde ona da ororentzat ulergarri dela eta orotan erabilgarri, onarpen molde guziak har baititzake. Halere baluke adjektibo edo izenondo baten beharra. Zein izenondo?

Onarpen juridikoa? Irudiz esanahia zehatzagoa da. Baina ikusi dugu Frantzia hizkuntza guziek badutela zuzenbidezko onarpena, 11. artikuluari esker adierazpen askasunaren izenean eta zer ondorio atera daitezkeen harreman publikoetan ere. Gutiz ez utz. Halere zuzenbide indibidualean gaude eta zerbait gehiago nahi dugu. Demagun legezko onarpena. Ikusi dugu Frantzian bada-goela hizkuntz legeria zerbait: Deixonne, Tubon, Polinesia, Korsika, Kaledonia

Berria ... Falta zaiguna da Kilileak definitu zuen *“izaite legal egokia”*, herri hizkuntzei sustengua emanen diona, komunikazio eremu guzietan, nola irakas-kuntzan hala administrazioan eta hedabideetan.

Onarpen publikoa? Niretzat hau esamolderik eragingarriena da, alabainan frantsesaren eta herri hizkuntzen arteko ezberdintasun konstituzionala publikotasunean dago. Berdintasuna edo gutienez parekotasuna bilatzen dugun neurrian, errepublikaren mailan publikotasun juridikoa eskatu behar dugu. Esaera honen alde ona da onarpen publikoaren borroka berehala eraman genezakeela, de facto, alor guzietan, orain arte ardietsi dugunaren jarraipenean. Hortarako ez dugu hizkuntz legearen zai egoterik. Geroko euskal departamenduarentzat ere balio du. Eurokartak ateka berri batzu ireki dizkigu, militantismoaren bidez zabal litezkeenak. Bestalde eskaintzen diguten *“ondare nazionala”* har nezake *“ad hominem”* argudiotzat, eta bakoitzak asma dezala zein den bere nazioa.

Onarpen ofiziala? Ofizialtasuna da gutartean euskarari buruz erabiltzen dugun hitzik aberatsena, sinboloz betea ikurriña bezala. Hegoaldean biziki eragingarria da Espainiako konstituzioak erkidegoari lotzen duelakotz. Ondorioz Euskal Autonomi Erkidegoko hizkuntz legeak (1982) dio *“Euskal Herriak euskera du berenezko hizkuntza”* eta gero *“EAEn hizkuntza ofizialak euskera eta gaztelania dira”*.

Iparraldean araberako moldean mintzatuz abertzale ez diren herritarrekin edo beste herrialdeetan, adibidez *“koofizialtasuna”* aipatuz, ez gaituzte ulertzen. Ofizialtasunak Frantzia sortzen du oinarritzko auzi konstituzionala, lurraldetasunari eta herritasunari lotua delakotz, *“komunitarismoa”* dio Carcassonnek. Politikaren alorrean borroka hori ere eramaten dugu, Korsikan edo Polinesian bezalatsu. Edo euroeskualdearen bidez. Gaur egun euskal departamendua ezin ardietsiz ari gara, hau nahitaez errepublika erakunde bat delarik.

Azkenean zer? Nire aspaldiko leloa da, *“ametsa eta urratsa”*. Iparraldean euskararentzat egin behar dugu publikotasunaren urratsa, eta ofizialtasunaren ametsa. Ez da ametsik gabeko urratsik. Baina realpolitikaren bikoiztasuna onartzen ez badugu, luzaz oraino herri birtual batean janen ditugu ametsetako lukainak.

Espresso konstituzionala harrigarria da bere laburrean: *“Errepublikaren hizkuntza frantsesa da”*, inolako adjektiborik gabe. Guk ere, inolako adjektiborik gabe ihardetsi eta ihardoki behar diogu: *“Euskal Herriaren hizkuntza euskara da”*. Horixe idatzi genuen Euskararen Agirian (1994) eta Hizkuntz Antolaketaren Eskeman (1996). Agian, euskara Euskal Herriko hizkuntza nagusia bilakatuko delakoan, de facto, urratsez urrats.